# 9. GAIA: ESPAINIAKO TESTUINGURUA XX. MENDEKO BIGARREN ERDIALDEA: FRANKISMO GARAIA ETA TRANTSIZIOA

## 0. FRANKISMOKO IKUSPEGI OROKORRA

Frankismoaren garaipen bat izango da eboluzionatzen jakin zuela, garaira egokitzen nolabait esanda

- Frankismoak kontrol zorrotza inposatu zuen hedabide guztien gainean. Neurri batean, era eraginkorrean lortu zuen bere proiektu politikoaren (behintzat) zenbait eremu naturalizatzen (bereziki generoari dagozkion ideiak, eta neurri batean patriotismo espainola eskuineko kultura politikoarekin identifikazio naturala egitea lortu zuen). Hedabideei esker eta garaiko ezaugarri izan zen edonolako oposizio formen jazarpen, ezberdintasunen zapalkuntza eta errepresio sistematikoari esker.

- Diktaduran zehar, **hedabideei dagokien** arautegiak aldaketa txikiak izango ditu. Berrogei urteetan zehar **gailendu ziren ezaugarriak** izan ziren: zentsura, kontrola, arautegien aplikazio arbitrarioa, obskurantismoa eta doktrina ofizialaren mezua zabaltzen zuten hedabideen sustapena. Guzti honek logika jakin bati erantzun zion: Gainontzeko Estatu totalitarioek bezala, komunikazioaren (eta beste gizarte esparruen) gaineko kontrol zorrotza Nazioaren mesedetan egiten zen, Nazioaren "benetako izaerari" erantzuteko egiten zen.

## 1. GERRAOSTEA ETA GARAIPENAREN KULTURA

- Gerraostean inposatu zen logika, neurri handian, gerraren luzapen bati erantzun zion (1939-1947). Ez bakarrik materialki gailendu zen hondamendi eta goseagatik:
    - Gerra irabazi zutenen ikuspuntuaren arabera, beren "garaipenak" "Benetako Espainiaren" jaiotza berria ekarri zuen.

Hala ere, adi egon beharra zegoen: nazioaren gorputzak “purifikazio tratamendua” jasotzen jarraitzea eskatzen zuen.

- Frankismoko lehen etapan inposatu zen “Garaipenaren kulturak” bermatu zuen tentsioa eta ongia vs. gaizkiaren errelatoa bizirik mantentzea. Narrazio hau erritual ezberdinen bidez sartu zen ikasgeletan, aldare eta hedabide guztietan.
- Ezin zitekeen “erorien” ahanztura onartu, eta ezin zitekeen onartu bukatu berri zen “esku-hartze” mota berri bat eskatuko lukeen errealitate bat errepikatu.

- **Garaipenaren kulturaren ardatz nagusiak**
    - Ongia vs Gaizkia
    - Herria vs Hiria
    - Katolikoa vs Ez katolikoa den guztia
    - Espiritualtasuna vs Materialismoa
    - Patriotismoa vs Errepublikarrak, nazionalismo periferikoak, ezkertiarrak eta orokorrean, aurreko ezaugarri txar guztiak ordezkatzen dituztenak.
- Errealitate totalitario eta erabat dikotomikoa inposatu zen.
- Nazismoan ikusi genuen bezala: klase borrokaren existentziari uko egiten zaio (eta ezberdintasunei karitatearen bidez erantzun) eta sexu-ezberdintasunaren oinarritutako gizarte ordena zorrotza inposatuko da (gizon gerlaria eta amatasuna)
- Gizartearen gaitzak (komunismoa, feminismoa, nazionalismoak..) katolizismoaren bidez sendatuko dira (zentzu honetan nazismoaren teknika eugenistiko erasokorrei uko egingo diete)

“No queremos el progreso, el romántico y liberal, capitalista y burgués, judío, protestante, ateo y masón progreso yanqui. Preferimos el atraso de España, nuestro atraso, el que nos lleva a considerar que ante unos valores fundamentales deben sacrificarse los intereses materiales”.

CASTRO VILLACAÑAS, Antonio, *La Hora*, 1948eko maiatzak14. Sindicato Español Universitario (SEU) erakundekoastekaria

- 1938. urteko Prentsa Legea (RamónSerrano Suñer, Barne-arazoetako ministerioa)
    - Behin-behineko izaera izanik ere, 1966. arte indarrean.
    - Aurretiko zentsura.
    - Egunkarietako zuzendarien izendapena.
    - Kazetarien Erregistro Ofiziala.
    - Deszentralizazio administratiboa (gertuagoko kontrola).
    - Kontsignak.
    - Izunak.

- “Cadena de Prensa del Movimiento” (FET y de las JONS)
    - *La Voz de España* y*Unidad*(Donostia).
    - *Hierro*(Bilbo).
    - *Arriba*(Madrid).
    - *Pueblo*(Madrid).

    - *Arriba España* (Iruñea).
    - Aldizkariak:*Primer Plano* (zinema),*Haz*(SEU)
- Jabetzapribatukoak:*ABC*, *La Vanguardia Española*, *El Diario Vasco*, *La Gaceta del Norte*, *El Correo Español-El Pueblo Vasco*.
- **EFE Agentzia**: "[suge para] difundirla verdadespañolaenel mundoy proporcionara España informacióninternacional". Agentzia honi bakarrik erosi behar kanpoko albisteak.
- Beste hedabideak
    - **Radio Nacionalde España**.
    - **No-Do**: Pelikulen emanaldien aurretik proiektatzeko derrigorrezkotasuna (1942-1976); borondatezko proiekzioa 1981 urtera arte.
    - **Zinema:** zentsura, kontrol zuzena eta "cinede cruzada"(eta erlijiosoaren) delakoaren sustapena (arautegi zehatzen argitalpenik ez, 1963 arte).

"Siendo innegable la gran influencia que el cinematógrafo tiene en la difusión del pensamiento y en la educación de las masas, es indispensable que el Estado lo vigile en todos los órdenes en que hay riesgo de que se desvíe de su misión".

Ramón Serrano Súñer, (1938ko azaroak 5)

- **Erregimenaren borondatea eta jendearen komunikazioaren kontsumo-joerak.**
    - Zinema eta irratia izan ziren hedabide popularrenak.

- Zine folklorikoaren eta “endreduzkoaren” arrakasta.
- Irratsaioak:*Ama Rosa* (Radio Madrid –SER–), *Consultorio de Elena Francis* (1947-1984) eta *Carrusel deportivo* (SER, 1952etik)
- Aldi honen bukaeran telebista agertuko da (1956), eta harekin, erregimenaren biraketa diskurtsiboaere bai (Estatu Batuak bihurtuko dira erreferente hainbat eremutan, komunikazioan –eta bereziki entretenimenduan– ere bai).

## 2. 1960KO HAMARKADA: *APERTURISMOAREN* ETA *DESARROLLISMOAREN* KULTURA

- II Mundu Gerra eta gero, eta bereziki 1950.eko hamarkadan zehar, erregimen frankistak diskurtso biraketa garrantzitsua burutu zuen. Eragiketa honen bidean, frankismoak bere izaera falangista alboratu (edo bigarren planoan utzi) eta bere izaera katolikoa azpimarratu zuen.
- Agintari batzuk ikusi zuten beharrezkoa zela herriko politika diplomatikoak eta ekonomikoak aldatzea bloke kapitalistara gerturatze (eta harekin homologatze) bidean.
- 1950.eko hamarkadan zehar ekimen ezberdinak jarri ziren martxan, hurrengo hamarkadan gauzaturik agertuko direnak.
- Honela,1960ko hamarkada *desarrollista*izan zen hazkunde ekonomikoko garaia eta espainiar gizartea, herri kapitalisten masa kontsumoko eredura(ñabardura garrantzitsuekin) gerturatu zeneko garaia.
- Ikuspuntu kultural batetik, 1960.ko hamarkada *aperturismoa*ren garaia bezala ezagutzen dugu: mundu demokratikoarekin homologatu nahian

erregimenak hartutako neurriengatik (nolabaiteko “malgutasun” bidean) eta zabaldu nahi izan zuen irudi beragatik (barrura zein kanpora begira).

- Desarrollismoaren eta aperturismoaren errelatoek erregimenaren eta Franko beraren**“zilegitasun” bideak gaurkotu eta**, nolabait,**sendotu** zuten.
- 1951. urtean *Ministerio de Información y Turismo* sortu zen: proiektu guzti honen ministerio funtsezkoa izan zen. Garaiko bi industriarik garrantzitsuenen (aipaturiko errelatoa eraikitze bidean) kudeaketa antolatu zuen.
    - Gabriel Arias Salgado (katoliko integrista) (1951-1962)
    - Manuel Fraga Iribarne (falangista)(1962-1969)
- Frankismoak **iraganaren berrirakurketa** egin zuen hura garai berrietara egokituz. Narrazio honen arabera:
    - Iraganeko atzerapen ekonomikoa eta gosea gainditurik zeuden eta oparotasunean bizi zen Espainiako biztanleria.
    - Egoera berri, oparo eta zoriontsu honen erantzukizuna altxamendua ekarri zuten ideiekiko fideltasunarena eta Frankoren lidergo trebe eta eraginkorrarena dira.
    - Aipatutakoaren arabera, zalantzarik ez zen geratzen → Herriak Frankoren lidergoan konfiatzen jarraituz gero eta, honela, *Statuquo*akbere horretan jarraituz gero, gizarteak ezin zuen zorioneko etorkizuna (ongizate materialaren bidean) baino espero.
    - Gerraosteari nostalgiaz* begiratzen zitzaion, horrekiko aldea azpimarratzen zen bitartean. (hizkuntza nostalgikoak, orokorrean irakurketa akritikoak sustatzen ditu).

- Errelatohonek erregimenari eta Frankoren botereari zilegitasun berria eman nahi zion, egunerokotasun desarrollistarekikobegirada akritikoari mesede egiten zitzaion bitartean.
- Jendartearen parte zabalak bat egin zuen desarrollismoarekin(ez hainbeste honen inplikazio politikoekin, nahiz eta, finean, korronte horrekin bat egin nolabait). *El Verdugo*(Luis García Berlanga, 1963).

- ManuelFragaIribarne eta "aperturismoa" (1962-1969)
  - Zinemagintzako zentsura arauak zehaztu egin ziren (eta lege bezala kaleratu)
  - **Leyde Prensae Imprenta (1966)**; askatasun itxura.
  - **"XXV Añosde Paz"** Kanpaina politikoa: desarrollismoarennarrazioaren zabaltzea eta Francoren irudiaren goraipamena (edadismoadelakoa erabiliz, bere adina erabili egin zen irudi gertuago bat proiektatzeko asmoz.)
  - ***Spainis Different***(1962) turismoa sustatzeko kanpaina: Espainiaren irudi ederra, **jatorra**, irekia zabaldu (kanpoan eta barruan). Delako aperturismoakutzi zituen zirrikituei esker, hedatzen ari ziren erresistentzia mugimenduek lema hau ironiaz irakurtzen zuten gero eta gehiago → Espainiaren ezberdintasuna errepresioa eta askatasunik eza da.

"En España hubo una guerra interpolada entre dos irrefutables justificaciones: El caos de 1936 y la venturosa realidad de 1964. Por ganar esta orilla de una España mejor, **dieron su vida, en un lado y en otro,** un millón de españoles (…)

[Invito a la juventud a que compare]la España que recibimos con la España que les legamos, que e**l progreso** de la patria **se alcanza** con las aportaciones de las

sucesivas generaciones que constituyen una cadena en la que ellos [los jóvenes] van a ser un eslabón (…) que ser español ha vuelto a ser algo serio en el mundo, que constituimos la reserva espiritual de occidente y que tenemos, por consiguiente, una alta misión que cumplir (…)

[A los que vivieron la guerra] que perseveren en su fe y en su espíritu de servicio y no se dejen vencer por la vida, que mantengan el orgullo de haber contribuido en forma decisiva al resurgimiento de la patria y que proyecten en sus hijos y sus sucesores este gran amor y este espíritu de sacrificio".

"Bajo el sol del verano" -- *No-Do*, núm. 974A (1961)

"En estas imágenes podemos contemplar cómo Franco gusta de la vida hogareña, descanso y sosiego para la ardua labor que realiza como Jefe del Estado y del Gobierno, y es aquí protagonista de sencillas escenas familiares en compañía de los pequeños. Con ellos y con algún amiguito de los niños, el Generalísimo ve discurrir unas horas matinales en la playa. En esta sosegada intimidad le rodea el cariño de sus nietos, como le acompaña y escolta el afecto y la gratitud del pueblo español, que ve en él al más fiel mantenedor de la paz y del orden de la patria, salvada de sus enemigos en la guerra y engrandecida y próspera en los venturosos años de nuestra paz".

http://www.rtve.es/filmoteca/no-do/not-974/1470339/

- 1960.ko hamarkada erresistentzia forma ezberdinen adierazpen kulturalen hedapenarenaere izan zen.
- Aperturismoadelakoak, mantendu ziren muga, zentsura eta kontrol forma guztiak kontuan izanda ere, erresistentzia-kulturalaren presentzia "ahalbidetu" zuen.
- **Gazteria**ren inkonformismoaeta bultzada politikoa (nazioarteko aire iraultzaileen eragina: 1968ko Maiatza).

- Nuevo Cine Español.
- *Ama Lur*( NestorBasterretxeaeta Fernando Larruquert, 1968)
- EzDokHamairu.
- LouredesIriondo:GazteGeraGazte,taezgaudekonforme.
- *ZerukoArgia(espreziotokia).*

## 3. DIKTADURAREN AGONIA ETA TRANTSIZIOAREN/KONTSENTSUAREN KULTURA

- 1977. urteko legea eta zentsuraren bukaera.
- 1978. urteko Konstituzioa.
- Hedabideen inguruan ere antolatu ziren iritzi-eremu garrantzitsuak (erabaki politikoetan eragina izateko ahalmena zutenak): ”GrupoTácito” eta ”El bunker”
- Hedabide berriak: *El País* (1976-),*Diario 16 (*1976-2001),*Egin*(1977-1998), *Deia*(1977-).
- Aldizkari feministak: *VindicaciónFeminista* (1976-1979),Geu Emakumeok (1985-95).
- *No frustrarla esperanza*(1977): egunkari ezberdinek kaleratu zuten editorial bateratua Atochakosarraskiaren ondoren.

## 4. DEMOKRAZIA ETA MODERNITATEAREN IMAJINARIOA. GAILENDU EGIN ZEN DISKURTSOAK (EGIA SORTZEKO GAI DEN HORREK) NOLA IMAJINATU ZITUEN URTE HORIEK?

- *Interviú*(1976) garaiarekin identifikatzen den hedabide erreferentea da.
- Aldizkari formula erabat arrakastatsua izan zen: emakume biluzien argazkiak eta eduki ”serioagoak” (nahiz eta nahiko forma sentsazionalistan landuak izan).
- Antonio Álvarez Soliskazetariak sortua.
- Trantsizio garaiko irudi ikoniko bat bere 16. zenbakiko azala izan zen (memoria kolektiboan grabatua geratu den irudia, askatasunarekin eta demokraziarekin lotutako esanahia eman zitzaiona).
- Frankismo garaiko “jainkojale” testuinguruarekin eta errepresio sexualarekin apurtu zuen emakume biluzien irudiak erabilita → honek ***progre*** **itxura**bat eman zion (horretarako emakumeen gorputzen objektualizazioaeta sexismoa indartu, sakondu eta naturalizatzenlagundu bazuen ere).
- Aldizkaria, eta bere ***destapeak*** askatasunaren, demokrazia jaio-berriarekin identifikatu ziren, aire berriekin eta tabu kontserbadoreen apurketarekin. → **Ikuspuntu hau** (maskulinoa eta heterosexuala) **gailendu egin zen eta begirada horrek egin zuen/osatu zuen kontsentsuaren edo trantsizioaren kultura**.

**Juan Luis Cebrián - *El País*** egunkariko zuzendaria

Yo, desde luego, soy marisolista. Aunque recuerdo con horror las películas de aquella niña de trenzas rubias y voz atiplada; películas que en realidad no vi, sino sólo los trailers; luego, cuando la niña creció, la cosa cambio de tono y me pasé a los de su bando por pura sensibilidad estética. (...) no me gusta como canta(...) me parece una actriz mediocre (...). Pero Marisol ha sido una de las pocas mujeres-objeto, a nivel europeo que hemos podido enseñar. Aquí las mujeres-objeto, siempre son gordas y bajitas y esperan al marido en casa para irse al cine de su barrio. Marisol, por lo menos, es un objeto de valor.

*Interviú*, núm. 16, septiembre de 1976: 36